

1957ko uztailean, 13 bat lagunuen ekimenez –horietako asko ofizial mekanikoak ziren eta Oñatiko enpresetan lan egiten zuten (GARAY, SANTIAGO CORCOSTEGUI, etab.)- euren lanpostuak utzi eta Talleres Ignacio Maiztegui enpresan hasi ziren lanean, inolako figura juridikoren estaldurarik gabe.

Alkilatutako lokal zahar eta txiki batean hasi ziren lanean, Oñatiko Mendikokalen, hain zuzen. Euren xedea zen, batez ere garai hartan Oñatin zegoen txokolate industria ugari eta oparoarentzat (Zahor, Loyola, Martín Orbea, Onena, Guereca y Maiztegui), lan osagarriak eta mantentze lanak egitea, bai eta garai hartan Oñatiko zerrategi desberdinetan zeuden enborrak mozteko zerrak konpontzea ere.

Hilabete batzuen ondoren, 1958. urte hasieran, Talleres Ignacio Maiztegui enpresa lekualdatu eta Oñatiko Alzaá 92 kalean kokatu zen (Kurtzekua etxea).

Urte gutxi batzuk pasa eta gero, txokolategietako jarduera urrats berriak ematen hasi zen eta, ondorioz, biltzeko makinak egiteari ekin zitzaion: txokolatearentzat aurrera, beste aplikazio batzuentzat ondoren, baina biltzeko makinaren inguruan beti. Horixe izan zen egungo Packaging negozioaren jatorria.

Hortik gutxira eta kasualitatez, sortzaileetako baten senide erligioso batek informazioa eman zuen, AEBetan egiten zen produktu bati buruzko katalogoen inguruan, Aldamio Metaliko Modular izena zuena. Laster ekoizpen propioan sartu zen Aldamioen fabrikazioarekin eta horrela eman zitzaion hasiera egungo Eraikuntza negozioari.

Biltzeko makinak merkaturatzeko ULMA marka aukeratu zen –izen hori bat dator historikoki gure kooperatibak izan duenarekin-, sei sortzaileen abizenenen lehen letrarekin sortutako akronimoa, hain zuzen:

o Pedro Ugarte **U**
o Esteban Lizarralde y Julián Lizarralde **L**
o Isidro Mendiola e Ignacio Maiztegi **M**
o Julián Aiestui **A**

Aldamioa merkaturatzeko JJEIP marka aukeratu zen, gutako askorentzat aski ezaguna, sei sortzaileen abizenenen lehen letrarekin sortutako akronimoa dena:

o Julián Lizarralde **J**
o Julián Aiestui **J**
o Esteban Lizarralde **E**
o Isidro Mendiola e Ignacio Maiztegi **I**
o Pedro Ugarte **P**

1957/1961 epealdian jarduerak izandako hazkundearen ondorioz, plantila handitu eta enpresa garapenerako toki fisiko handiagoa behar zela ikusi zen; horrenbestez, eta kontuan izanik eskualdean gero eta kooperatiba gehiago sortzen ari dela (Arrasaten, bate zere), 1956an Arrasaten sortzen

da Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren baitako lehen kooperatiba: ULGOR.

Segidan kooperatiba berriak sortuko dira eta, 1959an, Caja Laboral Popular eratuko da, kreditu-sozietate kooperatiba; ULMA marka baliatuz, kooperatiba itxura izango duen erakunde juridiko bat eratzea erabakiko da.

Eraketa datuak

- Data: 1961eko irailak 8.
- Bazkide sortzaileak:
 - Aranburu Biain, José María
 - Aiastui Madina, Julián
 - Egaña Aldazabal, José Ignacio
 - Egaña Egaña, Juan
 - Lizarralde Beitia, Julián
 - Lizarralde Eiguren, Esteban
 - Maiztegi Zubizarreta, Ignacio
 - Mendiola Elorza, Ángel
 - Mendiola Lauzurika, Isidro
 - Mendizábal Etxabe, Maria Teresa
 - Sáiz Ecija, Julio
 - Ugarte Aiastui, Pedro
 - Ugarte Aiastui, Antonio
 - Unzurrunzaga Loinaz, Francisco
 - Vidal Romero, José
- Sozietate izena: Sociedad Cooperativa Industrial TALLERES ULMA.
- Lehen Kontseilu Errektorearen osaera:
 - Lehendakaria: Egaña Aldazabal, José Ignacio
 - Idazkaria: Sáiz Ecija, Julio
 - Diruzaina: Mendiola Lauzurika, Isidro
 - Bokala: Lizarralde Beitia, Julián
 - Bokala: Lizarralde Eiguren, Esteban
- Helbide Soziala: behin-behineko izaeraz, Alzaá kaleko beheko plantan (Kurtzekua etxea); eta, behin betiko izaeraz, Otadui 3 pasealekuan orduan egiten ar izen planta berriko eraikin edo pabiloian.
- Helburu Soziala: elikadurari begirako makinen fabrikazioa eta salmenta; bereziki, elikagaiak, eraikuntzako erremintak eta motorrentzat osagarriak eta ordezeko piezak biltzeko eta paketatzekoak.
Kooperatiba Otadui pasealekuan kokatu eta gero, negozioa pixkana-pixkana handituz joan zen bere bi ekoizpen jardueren inguruan: Biltzeko makinak eta Aldamioak. Halaber, produktu berriak etengabe jasotzen joan zen karteran, baina betiere eskuratutako ekoizpen teknologiaren

ezagutzan oinarritutako ekoizpen integrazioaren ikuspegitik, eta merkatuaren eskaeren aurrean gehiegi larritu gabe.

Hirurogeiko hamarkada amaieran, eta enpresa hazkunde izugarriak eskatzen zituen egituraketa beharrei erantzuteko, enpresaren konfigurazio funtzionala osatu zen, sailka antolatuz. Horrela jaiotzen dira Administrazio Saila, Komertzial Saila, Sail Teknikoa, etab. Hala, ULMA enpresa aipagarri bilakatzen da, 192 bazkiderekin eta 134 milioi pezetako fakturazioarekin.

Enpresa jarduerak argi eta garbi egin zuen eraikuntza produktuen alde: horrela, 1968an fakturatutako 134 milioi pezetetatik soilik 14,8 milioi ziren biltzeko makinetatik fakturatutakoak; gainerako 119 milioi pezetak produktu desberdinen artean banatuz iren, hauexek garrantzitsuenak:

- Aldamioak 80,7 M. pta.
- Puntalak 29,7 M. pta.
- Exzentrikoak 5, 8 M. pta.
- Hesiak 2,4 M. pta.